



■ KAXKO ELKARTEA TXOTX GARAIA

Txotx garaian neurriak hartzeko deia

Kaxkoko hainbat bizilagunek ideia batzuk proposatu dituzte txotx garaian denon arteko elkarbizitza ona bultzatzeko. Bestalde, jakinarazai dute Kaxko elkarteak errifak salgai daudela, 26ra arte.

KAXKO elkarteak bizilagunek hainbat neurri proposatu dituzte txotx garaian sortzen diren arazoei aurre egiteko. «Elkarbizitza onerako, gauza txiki hauek fruituak ematea espero dugu».

Ontziak botatzeko plastikozko poltsak

Proposamenetako bat da tabernariak plastikozko poltsak jarri ditzatela kanpoaldean, bisitatzen gaituztenek edalontziak lurrera bota ez ditzaten. «Orain dagoenarekin ez da nahikoa, taberna batzuetan dauden barrikak segituan betetzen baitira».

Portalak garbitzeko eskaera

Bestalde, bizilagunek tabernariei eskatzen diete taberna ondoko portalak garbitzeko, erratza eta mangerarekin, behin taberna itxi ondoren. «Azpimarratu nahi dugu



Tabernetan jartzen diren barrikak segituan betetzen direnez, zabor poltsak jartzea proposatu dute bizilagunek.

tabernari batzuek dagoeneko egiten dutela hori».

Azkenik, gauetan ate eta leihoak ixteko eskatu dute.

Errifak, 26ra arte

Bestalde, gogorarazi dute Migel Lujanbiok elkartearen errifak salgai dituela, hilaren

26ra arte; euro baten truke, 10 zenbaki. Errioguardan 4 pertsonentzako otordua izango da saria. ■

■ GAZTETU HERNANI

Azken saioa gaur, emaitzak ezagutzeko

Hernaniko gazteen inguruko diagnostikoa egiteko parte-hartze prozesua bukatzeaz da. Gaur egingo da azken saioa, 17:00etan Biterin, emaitzak ezagutarazi eta hartuko diren neurriak azaltzeko.

URRIAN jarri zen martxan Gaztetu Hernani parte-hartze prozesua, Hernaniko gazteen diagnostiko bat egin eta Udalaren gazte politikaren lan ildoak zehazten laguntzeko.

Bost lan saio egin dira, eta gaur, 17:00etan Biterin, emaitzen berri emango dute.

Ondorioekin zer egin?

Urrian aurkeztu zuten parte-hartze prozesua, Atsegindegian antolatutako *Worldkafear*ekin. Helburua izan zen galdera bati erantzutea: zer da gaztea izatea egungo Hernanin?

Ordutik, beste lau lan saio antolatu dira, gazteek hainbat

gairen inguruan hausnartu eta herriko diagnostikoa egiteko: espazioen erabilerak, herriko gazteen arteko harremanak, gazte politika baten lan lerroak, eta Udala eta gazteen arteko balizko elkarlan espazioak.

Prozesuan 65 partehartzai-

letik gora izan dira, eta landutako guztiarekin hainbat ondorio atera dira. Ondorio horien berri emango dute gaur, hain zuzen ere, 17:00etan Biterin.

Bestalde, prozesutik ateratako ondorio horiekin zer egingo den azalduko dute. ■

■ MENDIRIZ MENDI

Irteera, igandean

Helduentzako irteera antolatu du Mendiriz Mendik igandera-ko, arraina eta ardoaren bidean barrena. Izena emateko azken eguna ostirala da. ■

■ ERRUGBIA

Denda zabalik

Gabonetako dendak irekita du Errugbi Taldeak, Landaren, gaur, astelehenean eta asteartean, 18:00etatik 20:00etara. ■

■ ELKARTASUN DENDA

Denda, Kaxkoan

Elkartasun dendak irekita dago urtarilaren 5era arte; aurten, Kale Nagusian. ■

■ SAN JOAN KONPARTSA

4580, sariduna

Santo Tomas egunean San Joan Konpartsak zozketatutako errifa sariduna 4580 da. Irabazleak urtarilaren 21a baino lehen deitu behar du telefono honetara: 695 753 138. ■

■ KRONIKA-BERRIAK

Saskien irabazleek ostiral arteko epea

Berriak eta Kronikak zozketatutako gabonetako saskien irabazleek ostiralera arteko epea dute Kronikara deitzeko.

Saridunak: 0540 (Ikusi Makusin saldua), 0009 (Keran saldua), eta 0170 eta 0183 (Dorrnsoron salduak). ■

■ UDALA

Partidurako sarrerak doan

Euskal Herriko Pilota Selekzioak Mexikoren aurkako partidua jokatu du igandean, 17:30etan kiroldegian. Udalak 40 sarrera banatu ditu doan; gaur eta ostiralean lortu daitezke, kiroldegiko bulegoetan, 09:00etatik 13:00etara. ■

■ GAZTE ASANBLADA

Mus txapelketan izen ematea

Urtarilaren 31n mus txapelketa jokatu da gartzetxean, eta izen-emate zerrenda Garin taberna dago; debaldekoa da. ■

on bit
KONPONKETA ZERBITZUA
Smartphone, Tablet...
Lehen markak soilik!
Mugikorrak liberatzen dira
Agustindarren plaza, 2
943 33 32 79 • HERNANI

ITXASPE
Arrandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Móbilak: 653 74 10 97
20120 Hernani

PEÑA
Okindegia - Januridegia
Eguneroko zure beharrei erantzuteko,
Kale Nagusian gauda.
Kale nagusia, 19 - Tel.: 943 55 23 98

AITAN - ETXE
TABERNA
Larramendi, 15
943 55 00 46
ASTEBURUETAN AFARIAK

ezkati
ileapaindegia
Iruñea, 4
Hernani
943 55 65 56
Hartu orduek

☎ TELEFONOAK • TAXIAK: 943 550093 • UDALTZAINGOA: 092 • DYA: 943 464622
• AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
• ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 • JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103
✚ FARMAZIAK • Egunez: Castilla Urbietan 7 943 552941 • Gauez: Aizpuru Latsunbeberri 11 943 336077

EGURADIA **GAUR** Lainoren bat edo beste agertu liteke, baina, orokorrean, eguzkia izango da jaun eta jabe, eta hai-zeak hegotik joko du. Giroa hotza izango da. Min.3°/Max.14°
BIHAR Giro eguzkitsuarekin eta ten-peratura hotzekin jarraituko dugu. Haizea ahul ibiliko da eta tenperatura jaitsiera ez da nabarituko. Min.3°/Max.12° (euskalmet)

I PORTU AUZOA GABONETAKO EGITARAU

Aspertzerik ez Portun, Gabonetan

Gaur, 18:00etan, Xalto pailazoaren emanaldia izango da. Datozen egunetan, zinea, karaokea, mendi irteera eta erroskila tailerra izango dira.

PORTUKO auzo ekarteak hainbat ekintza antolatu ditu datozen egunetarako, Gabonetako oporretan inor ez aspertzeko.

Gaur, arratsaldeko 18:00etan Xalto pailazoaren emanaldia izango da. Ostiralean,

berriz, helduentzako pelikula jarriko dute, 18:00etan. Astelehenean, karaoke festa antolatu dute, umeentzako, 18:00etan hasita. Abenduaren 30ean beste pelikula bat jarriko dute, 17:30etan; hau, umei zuzen-

dutakoa. Abenduaren 31n Santa Barbarara mendi buelta egingo da, 10:30etan abiatuta.

Bukatzeko, urtarilaren 2an erroskila tailerra eta merendola egingo dira, 16:30etatik aurrera. II

I PRESO ETA IHESLARIEN SENIDEAK



Osteguneko Plenoaren ondoren, senideekin argazkia atera zuten alkateak eta Gobernu Taldeko zinegotziek.

Presoen eskubideen aldeko konpromisoa eskatu dute senideek

Osteguneko Plenoan onartu zen senideek aurkeztutako mozioa, Gobernu Taldearen eta EAJren aldeko botoekin, eta H1! eta PSeren abstentzioarekin.

HERNANIKO preso eta iheslari senideek mozio bat aurkeztu zuten osteguneko Plenoan, «konpromisoa eskatuz, gure senideen eskubideak errespetatuak izan daitezen ahal duzuen gehiena egiteko». Udal Gobernu Taldeak eta EAJk mozioa onartzearen alde bozkatu zuten, nahiz eta EAJk

argitu zuen ez zuela deialdian parte hartuko. H1! eta PSE abstenitu egin ziren.

Parte harteko deia

Senideek azaldu zuten: «Hernaniko 24 presoetatik inor ez dago Euskal Herrian». Egoera hau salatu eta presoen eskubideak aldarrikatzeko hurren-

go ekitaldian parte hartzeko deia ere luzatu zuten: bihar, presoen aldeko Olentzeroan (20:00etan Plazan); ostiralean, zapi-katean (20:00etan Plazan); larunbatean, Martutenera Martxan (11:30etan Zinkoenetaik); eta urtarileko Bilboko manifestazio nazionalan. II

I DENDARTEAN

Bigarren zozketak baditu saridunak

Nekane Idarretak eta Agurtzane Intxaurrendok irabazi dituzte bigarren produktu sortak, Dendartean eta denon artean Zero Zabor Hernanin kanpainak zozketatutakoak. Kanpainarekin bat egindako Berriakeko establezimenduek hondakinak murriztera animatu dituzte bezeroak. Guztira, 297 kupoi bete dira hilabete zehar, eta 50 proposamen bildu dira establezimenduetan hondakinak murrizteko. II



I GIPUZKOAKO PALA TXAPELKETA

Ben Ali eta Zubimendi txapeldun

Gipuzkoako Pala Txapelketako finala jokatu zen larunbatean, Mutrikun, 3garren mailan. Altxatarren aurka jokatu zuten hernaniarrak, eta 25 eta 13 irabazi zuten Ahmed Ben Ali eta Aieko Zubimendik. Bestalde, larunbatean Emakumea Pilotari txapelketako finala jokatu da Hernanin, 17:30etan. Bertan jokatu du, aurreneko mailan, Maider Huizi hernaniarrak Alegiko Ainhoa Garmendia-ekin, Anoetako Maider Mendizabal eta Eneritz Perezen aurka. II

I EREÑOTZU

Helduen errondarik ez, bihar

Aurtengoan helduen gabon gaueko errondarik ez da izango Ereñotzun. Auzotarrei azalpenak emateko oharra idatzi dute. II

☞ JASOTA BEZALA

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak.

Ereñotzuko auzotarrei:

Urte asko igaro dira Eguberri bezperan abestera ateratzen hasi ginenetik. Ordubiak alde-ara gelditu, Irrintzin kafea hartu eta martxan jartzen ginen.

Pagoagatik hasi eta bailaran behera auzoa zeharkatzen genuen. Gure bozinak eta txistuak sumatu orduko ateak zabaltzen zenituzten gure abestiak entzuteko. Bizpahiru kanta abestu eta zuen borondatea jasota abiatzen ginen “Mila esker! Datorren urtera arte!” esanaz.

Erabakia hartzea ez da erraza izan, baina gure pentsamenduetan bueltaka izan dugun ideari heltzeko ordua iritsi da. Arrazoi batzuegatik edo besteengatik urteak pasa ahala zailagoa egin zaigu Gabonetako taldea osatzea.

Horregatik aurtun ez dituzue gure bozinak, txistuak eta ahotsak entzungo. Gabonetako helduen taldea ez da aterako.

Lerro hauen bidez urte guzti hauetan zuen borondatea erakutsi diguzuen guztioi

gure esker ona adierazi nahi dizuegu.

Diruz lagundu duzuenak, Olazar eta Ugaldetxon hartutako kafea eta gailetak, Txabolategiko ardoa eta gozoak, Julenen etxeko bajaran dastatutako surtidoak, Lastaolan Inaxio eta Anak eskaintzen zizkiguten edari eta polboroiak, Estarloa familiak prestatutako kalamarrak, Irubiden hartutako ardo eta pintxoak, Fagollagako kroketak, Larraingo sukaldeko berotasunean jandako txistorra eta patata tortilla eta erronda bukatzeko Goienetxeko txokotan eskaintzen ziguten azken piskolabisa.

GUZTIAGATIK, BIHOTZ-BIHOTZEZ, MILA ESKER!!!

Abesten genuen bezala “ondo banatu da behar zen lekura, auzotik falta ziren anaien etxera”

EGUBERRI ON!! Eta ikusi arte.

Izaskun Bengoetxea Uitziz Gabonetako Helduen Taldea Olak auzo elkarte

IRAGARKI MERKEAK

Sukaldaria behar dugu jatetxe batean, esperientziarekin. Urtarrilean hasteko.

Deitu: 600 668 957

Alokatzeko 3 gelako etxebizitza beharra daukagu. Deitu: 618 120 340

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Inigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, aurikuloterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)